

Bi munduen sinfonia

JUAN MARI LEKUONA

(Oiartzun, 1927)

Euskaltzain osoa, Deustuko eta Donostiako EUTGko unibertsitateetan irakaslea izan da erretiroa hartu arte. Euskal ahozko literaturan aditu handienetako bat, poeta bezala bide berriak ireki dizkio euskal poesiagintzari, eta XX. mendeko euskal poesian bere eragina guztiz nabaria da. Bere poema ugari itzuli dira gaztelerara, eta baita bakarren batzuk atzerriko beste hizkuntzaren batera ere. Poesiaz gain musika ere bere zaletasun nagusien artean dago, eta horregatik aukeratu du antologia honetarako *Bi munduen sinfonia*.

La Symphonie des deux mondes

DOM HELDER CAMARA

I. L'Audace du Créateur

L'Audace du Créateur *Récitant*

Ouverture *Orchestre*

Si j'étais à ton côté Seigneur *Récitant*
avant la création,
j'aimerais t'aider :
tu es tellement humble.
Si un doute quelconque
menaçait de t'amener à ne pas créer,
je te dirais :
« C'est vrai Seigneur,
la création hors de toi
brisera ton unité.
Elle sera nécessairement multiple...
Finie, bornée, imparfaite.
N'hésite pas, Seigneur;
le courage de créer
démontrera pour toujours
ton audace et ton humilité. »

Oui, Seigneur, enfin pouvoir te dire : *Chœurs*
Ne doute pas, va de l'avant.
Il faut créer, il faut construire.
Tu l'as rêvé aux premiers temps.

Va, Seigneur, va
et surtout ne crains pas

Bi munduen sinfonia

JUAN MARI LEKUONA

I. Egilearen ausardia

Egilearen ausardia

Obertura

Zure alboan banengo, Jauna,
Zuk gauzak sortu-aurrean,
nahiko nuke Zu laguntzea:
hain zara eta apala.
Zalantzarik izango bazenu,
gauzak ez sortzera bultzatuko zintukeenik,
hauxe esango nizuke:
«Egia da, bai, Jauna,
Zugandik kanpoko sorkariek
hautsi agingo dutela zure batasuna.
Nahitaez era askotakoak izango direla sorkariak...
Mugatuak, neurri batekoak, osotasunik gabeak.
Ez egin zalantzarik, Jauna;
gauzak sortzeko adoreak
agerian utziko du eta behin-betirako
zure ausardia, zure apaltasuna.»

Bai, Jauna, bai, azkenean ere esan diezazuket:
Ez duda-mudatan ibil; jo aurrera.
Beharrezko da gauzak sortzea, gauzak eraikitzea.
Ametz hau egin zenuen lehen aldi hartan.

Zoaz, Jauna, zoaz,
eta batez ere ez izan beldurrik

d'aller jusqu'au sommet
de ton audace et de ton humilité.

Décider de faire l'homme, *Chœur*
ce petit ver de la terre
—elle aussi, grain de poussière—
Décider de faire l'homme
créateur à tes côtés.

Toi, seul, Seigneur, *Chœurs*
Toi seul, oui tu le peux.
Toi seul Seigneur.

Décider de faire de l'homme *Chœur*
—misérable créature—
le dompteur de ta nature.
Ton ingénieur, ton héritier.

Toi, seul, Seigneur, *Chœurs*
Toi seul, oui, tu le peux.
Va, Seigneur.

Va Seigneur enfin pouvoir te dire
ne doute pas, va de l'avant.
Il faut créer, il faut construire.
Tu l'as voulu aux premiers temps.

Va, Seigneur, va et surtout ne crains pas
d'aller jusqu'au sommet
de ton audace et de ton humilité.

Toi, seul, Seigneur, *Chœurs*
Toi seul, oui, tu le peux.
Va, Seigneur.

Il n'y a que Toi pour aller si loin, *Chœur*
courir le risque des lendemains,
courir la chance de l'éternité.
L'enfant le dit au père
qui part en voyage :
Va, Seigneur, va...
et bon courage.

zure ausardiaren eta zure apaltasunaren
gailurreraino iristeko.

Erabaki gizona egitea,
lurreko har txiki bat baizik ez den gizona
—eta har txiki berau ere hauts-izpi dugularik—.
Erabaki gizona egitea,
Zurekin batera sortzaile izango den gizona.

Zuk bakarrik, Jauna,
Zuk bakarrik dezakezu, bai,
Zuk bakarrik, Jauna.

Erabaki gizona egitea,
—sorkari errukarri den gizona—,
izadia menderatzen duena.
Zure injinerua, zure oinordekoa.

Zuk bakarrik, Jauna,
Zuk bakarrik dezakezu, bai.
Zoaz, Jauna.

Zoaz, Jauna, azkenean ere esan diezazuket:
Ez duda-mudatan ibil; jo aurrera.
Beharrezko da gauzak sortzea, gauzak eraikitzea.
Hori izan zen zure nahia lehen aldi hartan.

Zoaz, Jauna, zoaz eta batez ere ez izan beldurrik,
zure ausardiaren eta zure apaltasunaren
gailurreraino iristeko.

Zuk bakarrik, Jauna,
Zuk bakarrik dezakezu, bai.
Zoaz, Jauna.

Zu izan ezik,
ez dago beste inor hain urruti joango denik,
etorkizunaren arriskua bere gain hartuko duenik,
betikotasunaren zortea bere bizkar hartuko duenik.
Umeak hala dio bere aitari,
aita nonbaitera doanean:
Zoaz, Jauna, zoaz...
eta izan bihotz.

Toi, seul, Seigneur, *Chœurs*
Toi seul, oui, tu le peux.
Va, Seigneur, va.

II. Homme, mon frère

Ouverture *Orchestre*

Homme, mon frère, *Chœurs*
la création toute entière te regarde.

L'Océan des forêts *Solo femme*
et l'incendie des fleurs,
les lanternes du ciel
et le miroir de l'eau,
et le monde bruissant
de tous les animaux sur le qui-vive,
entre la confiance et la peur.
C'est la création, partout autour de toi.
Un peu de jalousie et de curiosité
l'amènent à suivre les pas
de l'élu du Créateur.

Homme, mon frère, *Chœurs*
la création toute entière te regarde.

Et voilà que tu vas si loin *Solo homme*
sur la ligne de l'intelligence
est-ce la ligne de ta chance ?
Et voilà que tu vas si loin,
en donnant ton intelligence,
au cerveau de l'ordinateur.
Et dans le monde des étoiles,
tu deviens voyageur,
sur de nouveaux navires.

Homme, mon frère, *Chœurs*
la création toute entière te regarde
et t'admire.

Et voilà que tu vas si loin *Solo homme*
sur la ligne de l'égoïsme !
Si loin que tu te montres indigne

Zuk bakarrik, Jauna,
 Zuk bakarrik dezakezu, bai.
 Zoaz, Jauna, zoaz.

II. Gizona, ene senidea

Obertura

Gizona, ene senidea,
 zuri begira daude zeru-lurrak.

Oihan-basoen itsasoa,
 eta loreen sugarra,
 zeruko argizariak,
 eta uraren ispilua,
 eta pizti-abere guztien mundu marmaritsua,
 uste-onaren eta beldurraren artean
 erne dauden pizti-abere guztiena.
 Zeru-lurrak alde guztietatik inguratzen zaituzte.
 Lehia-grin eta jakin-min apurrek
 zeru-lur horiek daramatzate
 Egileak aukeratuaren urratsei jarraitzera.

Gizona, ene senidea,
 zuri begira daude zeru-lurrak.

Eta hona zu zeinen urruti zoazen
 adimenaren bidean,
 baina bereau ote zorte onaren bidea?
 Eta hona zu zeinen urruti zoazen,
 ordenadoreari
 zure adimena eskaintzeraino.
 Eta izarren munduan zehar
 bidaiari zaitugu,
 untzi berrien gainean.

Gizona, ene senidea,
 zuri begira daude zeru-lurrak,
 eta miresten zaituzte.

Hona zu zeinen urruti zoazen
 norberekoikeriaren bidean!
 Urruti, noski, Jaunak agertu dizun

de la préférence merveilleuse,
et presque scandaleuse,
que le Seigneur t'a manifestée.
La rumeur des questions
monte de tous côtés.

Homme, mon frère, *Chœurs*
la création toute entière te regarde,
et s'interroge.

Pourquoi donc as-tu gâché le meilleur *Solo femme*
qu'il t'avait donné, intelligence et liberté,
pour offenser ton Créateur ?
Tu as trahi ton Père.

Homme, mon frère, *Chœurs*
la création toute entière
te regarde et te juge.

Le Seigneur, Lui, *Récitant*
au lieu de te condamner, au lieu de t'écraser,
a envoyé son Fils unique
à ce grain de poussière :
La Terre.
Et le Fils de Dieu,
sans cesser d'être Dieu, se fait homme.
Il reste Dieu et il est homme.
Il est pour toujours l'Homme-Dieu.
Toi, homme mon frère,
Qu'as-tu fait de la vie,
De la parole du Christ ?

Homme, mon frère, *Chœurs*
le bilan face à l'an 2000,
de la naissance du Christ, il est terrible.

Qu'as-tu fait de l'Asie, *Solo homme*
Qu'as-tu fait de l'Afrique,
champs de feu et de larmes ?
Qu'as-tu fait des deux tiers
de l'Amérique latine,
opprimés et traqués ?
Et la musique, et la musique !

aukera miresgarriaren,
 ia eskandalagarri den aukeraren,
 duin ez zarela azaltzeraino.
 Mila galderen zurrumurrua
 gorantz dator alde guztietatik.

Gizona, ene senidea,
 zuri begira daude zeru-lurrak,
 eta galdezka ari dira.

Zergatik, ordea, alferrik galdu dituzu
 bere dohairik onenak, adimena eta askatasuna,
 zure Egilea nahigabetzen galdu ere?
 Saldukeria egin diozu zure Aitari.

Gizona, ene senidea,
 zeru-lurrak
 zuri begira daude, eta epaitu egiten zaituzte.

Jaunak, Berak,
 zu kondenatu beharrean, zu zapaldu beharrean,
 bere Seme bakarra bidali du
 hauts-izpi honetara:
 Lurrera.
 Eta Jainkoaren Semea,
 Jainko izatea utzi gabe, gizon egiten da.
 Jainkoa izanik, gizona ere bada.
 Jainko-Gizona da betiren beti.
 Zuk, Gizona, ene senidea,
 zer egin duzu bizitzarekin,
 Kristoren hitzarekin?

Gizona, ene senidea,
 Kristo jaio zenetik 2000 garren urteari begira
 egindako balantzea beldurgarria da.

Zer egin duzu Asiarekin?
 Zer egin duzu Afrikarekin?
 borroka-zelai eta negar-leku diren hauekin?
 Zer egin duzu Latinamerikako
 hirutatik birekin,
 zapaldurik eta setiatu-rik dauden hauekin?
 Eta musika, eta musika!

Etouffée, bâillonnée par le fracas des armes.
Amérique latine,
banlieue chrétienne du monde pauvre.
Terre battue aux enfants ensoleillés,
mais bientôt le soleil va se coucher,
pour ne plus se relever.
Qu'as-tu fait ?

Homme, mon frère, *Chœurs*
le bilan face à l'an 2000,
de la naissance du Christ, il est terrible.

Qu'as-tu fait des pauvres qui sont là, *Solo homme*
Au dedans des pays riches ?
Qu'as-tu fait de ces derniers parias,
les plus pauvres des pays pauvres ?
Ils crient vers toi,
ils ne comprennent pas.
Ne te détourne pas,
aurais-tu peur de leur voix ?

Homme, mon frère, *Chœurs*
le bilan face à l'an 2000,
de la naissance du Christ, il est terrible.

III. Qui va gagner ?

*Récitant
chœurs et
orchestre*

Qui va gagner ?
Tu sais très bien,
homme, mon frère,
que tu es suffisamment faible,
pour faire éclater la troisième
et dernière guerre mondiale,
avec le trop triste pouvoir,
de supprimer la vie sur la surface de la terre.
Et que tu es suffisamment fort
pour supprimer de la terre
la misère et surtout la domination.

Armen eztrandaz itoa, isil-arazia.
 Latinamerika,
 mundu behartsuaren kristau errebala,
 Eguzkitan beltzaturiko umeen lur makilkatua;
 baina laister gorde egingo da eguzkia,
 berriro ez ateratzeko gorde.
 Zer egin duzu?

Gizona, ene senidea,
 Kristo jaio zenetik 2000 garren urteari begira
 egindako balantzea beldurgarria da.

Zer egin duzu zuk, herrialde aberatsen barruan
 bizi diren behartsuekin?
 Zer egin duzu zuk, gaitzetsietan gaitzetsien direnekin,
 herrialde behartsuetan behartsuen diren haiekin?
 Garrasika ari zaizkizu,
 eta ez dute ulertzen.
 Ez atzea eman.
 Beldur al diozu horien ahotsari?

Gizona, ene senidea,
 Kristo jaio zenetik 2000 garren urteko balantzea
 beldurgarria da.

III. Nor irabazle?

Nor irabazle?
 Zuk oso ongi dakizu,
 gizona, ene senidea,
 nahiko argaltasuna baduzula zuk
 munduko hirugarren eta azkeneko gerra
 biztu-arazteko;
 eta ahalmen negargarria ere baduzula
 lur-gainetik bizia kentzeko.
 Eta kemenik aski ere badaukazula
 lurreko ezin-bizia, eta batez ere mendekotza,
 kentzeko.

A première vue, il semble *Récitant*
 Que la haine s’empare de la terre...
 Après la deuxième guerre mondiale,
 combien de guerres locales ont déjà éclaté.
 Et comme se multiplient
 les pays qui fabriquent des armes,
 et dans la course aux armes,
 comme elles se rendent toujours
 plus sophistiquées, plus coûteuses
 et plus écrasantes.
 Des pays qui n’ont pas l’essentiel
 pour leur peuple,
 et qui n’hésitent pas à s’endetter,
 d’une manière insolvable,
 pour sauvegarder leur déesse :
 la sécurité nationale.
 Un peu partout
 « sur la rive gauche et sur la rive droite »,
 il y a des enlèvements, des tortures,
 des trucidements,
 des personnes qui disparaissent pour toujours,
 des exilés, des réfugiés.
 Et au fond de cette terreur,
 et de cette insécurité, une société de gaspillage.

Qui enlèvera *Chœurs*
 ces trop lourdes structures,
 qui écrasent
 des millions de fils de Dieu ?

Et qui arrivent à tuer davantage *Récitant*
 que les guerres les plus sanglantes ?

Qui enlèvera ces trop lourdes structures, *Solo femme*
 qui écrasent
 des millions de fils de Dieu ?

Qui va gagner, *Solo homme*
 le fort ou le faible ? *Refrain*
 Qui va gagner ?

Qui va gagner ? *Chœurs*

Lehen begirada batean, badirudi
 gorrotoa egin dela lurraren jabe...
 Munduko bigarren gerraz geroztik,
 zenbat gerra biztu den lekuan-lekuan.
 Eta nola ugaritu diren
 armagintzan diharduten herrialdeak
 eta armamentu-laisterketan,
 nola gero eta sofistikatuagoak
 bihurtzen diren armak,
 gero eta garestiagoak, eta suntsizaileagoak.
 Badira herrialdeak beren jendeentzat
 behar den hura ere ez dutenak;
 eta ez dute zalantzarik egiten zorpean sartzeko,
 ordaindu ezin den eran sartu ere,
 beren jainkesa, nazioko segurantzia,
 babestu asmoz.
 Hemen apur bat, eta han beste bat,
 «ezkerreko ur-ertzean bezala eskuinekoan ere»,
 badira bahikuntzak, torturak,
 erailketak,
 behin betirako galtzen diren pertsonak,
 erbesteratuak, babestuak.
 Eta beldur-ikara honen azpian,
 ziurtasunik-eza honen azpian, gizarte zurrupatzailea.

Nork kenduko ditu
 astunegi diren egitura hauek,
 Jainkoaren seme-alabak
 miloika zapaltzen dituzten hauek?

Eta gerrarik odoltsuenak baino
 hilketa gehiago egiten dituzten hauek?

Nork kenduko ditu astunegi diren egiturak,
 Jainkoaren seme-alabak
 miloika zapaltzen dituztenak?

Nor irabazle:
 Indartsua edo apala?
 Nor irabazle?

Nor irabazle?

Je les connais les deux, *Solo homme*
Car le faible c'est moi.
Et mon triste pouvoir,
d'assassiner la terre,
en faisant une guerre, qui serait la dernière.
Et en perdant la vie
que l'on m'avait donnée.
Qui va gagner ?

Refrain

Je les connais les deux.
Le fort c'est encore moi.
Je pourrais supprimer
des deux rives du monde,
domination, famine, et colère qui gronde,
et rendre la justice que l'on m'avait donnée.
Qui va gagner ?

Refrain

Regarde devant toi ! *Chœur*
Ce grand fleuve de haine,
il monte de la plaine.
Et t'anéantira.
Regarde autour de toi !
Dans le monde
on court aux armes.
C'est la dernière alarme.
Et tu ne l'entends pas.

Refrain

Pour la sécurité,
que l'on dit nationale,
que de peuples s'empalent
sur une épée rouillée.
Au nom d'humanité
on exile, on torture.
Sous le poids des structures
tu tombes, liberté.

Refrain

Ezagunak zaizkit bata eta bestea,
 argala neroni naizenez.
 Eta nire ahalmen negargarria,
 lurrari bizia kentzeko ahalmena da,
 gerra bat biltuz, azkenekoa izango den gerra.
 Eta galduz gero
 dohai bezala eman zaidan bizia.
 Nor irabazle?

Errepika

Ezagunak zaizkit bata eta bestea.
 Kementsua ere neroni naizenez.
 Ken ditzaket
 munduko bi ertzetatik
 mendekotza, gosetea eta amorru marmarkaria,
 eta itzuli ere bai lehen emandako zuzentasuna.
 Nor irabazle?

Errepika

Begira zure aurrera!
 Gorrotozko ibai bulartsu hau
 zabaldegietatik gorantz dator.
 Eta ezereztu egingo zaitu.
 Begira zure ingurura!
 Munduan zehar
 armamentu-laisterketa egin ohi da.
 Hau da azkeneko dei-hotsa.
 Eta zuk ez duzu entzuten.

Errepika

Segurantzia dela eta,
 naziokoa deitzen zaion hori dela eta,
 herriek barne-sendogarri bezala
 ezpata erdoildua dute.
 Gizadiaren izenean
 erbesteratu egiten da, eta torturatu.
 Egituren zamapean
 erori zara zu, askatasuna.

Errepika

Regarde autour de toi !
Tyrannie, gaspillage,
serait-ce l'héritage
que tu leur laisseras ?
Regarde au fond de toi !
La misère et la haine,
conditions sous-humaines
qui t'en relèvera ?

Refrain

Begira zure ingurura!
Ankerkeria, gehiegikeria,
hau ote zuk utziko diezun
ondarea?
Begira zure barrunbera!
Ezin-bizia eta gorrotoa,
gizatasun urriko baldintzak:
nork aterako zaitu hortik?

Errepika